

# Agiñaldo, agiñaldo!

*"Urte barri barri  
txarri buzten belarri  
nik ezta kat eta neri  
kutxa bete gari!"*

kantauaz emoten jakon  
ongi-etorrixe urte barrixai  
Ernu aldien, txarri hil barrixe  
aittatuaz koplotan. Mallabixen,  
ostera, beste modu batera kan-  
tatzen zan:

*"Urte barri barri  
deukenak ezteukenari  
nik ezteuket eta neuri  
niri emoten eztoustena  
txarri belarri!"*

Hemen be txarrixe ekartzen  
eben akordure, baiña eskupeko-  
rik emoten ez dotsenei "txarri!"  
deitzeko. Egun horretan umiek  
poltsa haundi bat eskuetan  
deruela, peoraz-peora eta Mallebixen atairik-atai ibiltzen zien  
kantuen agiñaldo eskien. Barregarrixe benetan mallebittar  
batzuk ondiñok goguan dakarren bertsioño extraofizial hau:

*"Agiñaldo agiñaldo,  
agiñik ezteukena,  
agiñik bako!"*

Bizkaiko paraje asko eta askotan kantatze izan da, bertso  
batzuk gora esaldiren bat behera Ermua eta Mallebixen kanta-  
tzen dan berau:

*"Agiñaldo agiñaldo, Bizkaixa da Durango  
zazpi gaztaiña, zortzi intxaur.  
Aingeruak gera, zerutik gatoz,  
lotsia baukou, baiña eskian gatoz.  
Si si si, no no no, otzara bete solomo.  
Aquí estamos cuatro, sinco compañía,  
seis letanía, siete Ave Marías,  
ocho odolostias pa la Virgen de María"*

"Otzara bete solomo" eskatu baiña txakurhaundiren batzuk,  
intxaurrek, urrak edo sagarrak hornitzen eben poltsiori.  
Gabonetako postrie, intxaursaltsiak in batera, konpotie izaten  
zanez baserrixetan horrek egunotarako gordetzen zien okanpasa,  
pikupasa eta mahatspasok. Poltsara halakoren bat jausi ezkeru,  
akorduan hartzekua izaten zan, zu. Mallebiko etxe baten man-  
dariñak botatzen zittuezen eta ha baiño poz haundixagorik

*Hemen daoz herriko "aingerutxo" dan-danak (1932)*



umientzako! Haundixe izan Mallebixe eta umiek auzoka batzen  
zien Urte Barri batzen eitteko. Bazkalostien hasi eta iluntzerarte  
astixe egoten zan baserri dan-danetara juteko. Euren poltsiorraz  
etxaurrien parau eta kantatzie izaten zan gauziori, harik eta bate-  
ron batek ataire urten arte. "Ederto kantau dozue entzuten gen-  
dunien, pozaren pozez, kantau atzera be guk. Gero jira dana eiñ  
ostien, kamiñurik pez orduen ta jarri harri-horma baten gañien ta  
partidu eitten genduzan batutakuok. Ta konforme gaiñera!"  
diñosku Aurtenetxeko Pauliña Astarloak. Txindurrineko Maria  
Bengoetxeak goguen dauke euren aitek zelan esaten eban  
Baldespinako Markesak Ernuan bizi zienien, batutako genero  
dana umiek Palazixora eruten ebela eta Markesie bera ardura-  
tzen zala eskien ibillittako danen artien bihar dan moduen parti-  
tzen dana. Pillotxo mordua eiñ bihar izaten ei zittuen, herriko  
ume danak hartzen eben parte eta; orduan famelixa bakoitzeko 6  
eta 7 ume euazen eta etara kontuek!

Honen moduko eskeko jardun askotan begibistakue da  
umiek aurretik ipintzen ziela, jentie eurekin eskuzabalaua izan-  
go dan esperantzi az edo. Jasotako kopletan argi ikusten da  
umiok diela eskien dabizen "zerutik etorritako aingeruak".  
Kantua en jarraipena batzuk "lotsia baukou baiña" esanda eitten  
dabe eta beste batzuk lotsian orde z "poltsia" kantatzen dabe.  
Poltsiaz edo lotsiaz, Ernuko Anbrosia panaderiek esaten eban  
modure "umiekin, ezta zerura bez!"

*Estibalitz González*

komunitateak  
aseguruak

## San Pelayo

aholkularitza  
fiskal eta juridikoa

San Pelayo 6-A (Eroski gainean)  
46 P.K. - Ermua

ESTANCO  
SOLOZABAL

Torrekoa z/g  
48260 ERMUA (Bizkaia)  
Tlf. (943) 17 07 33

AKADEMIA  
ERMUA INFORMATIKA

TRESNERIA ETA OSAGAI  
INFORMATIKOEN SALMENTA

Goienkale kalea z/g  
Telefonoa (943) 17 90 38

IZOTZ  
KONTABILITATUAK

Ernuko Merkata, 54  
eta 55 postuak  
943 17 41 01  
Arrasateko Merkata  
943 77 05 98